

MARIE



Bertzek erran baitute nik baino len:

«Ainitz adituz dela ainitz ikasten»

Uste dut on den,

Nik dakidan bezala guziek arren

Jakin dezaten,

Beraz aipa dezagun Marie nor den.

Aztal biribil eta zangar ertsia;

Eskuaren berteko zango bia

Tiki tikia,

Golko bat aberatsa, lerdan gerria,

Erne begia;

Nolako pampina den orra Marie!

Erle bat da Marie eche barnean,

Eta landan orobat ari lanean

Bear denean;

Apaintzeko polliki bein astean,

Noiz? Igandean;

Uztai bearrik ez du soinaren pean.

Solas alegera bat errana gatik,

Irri freskorik baizen ez dut izan nik

Marie ganik;

Adizkidekin ez du anditasunik;
Bainan argatik!
Ez erran Marieri solas arinik!

Mariekin baratzean badu berea,
Udan eta neguan lorez betea
Errek-arteak;
Bere loren artean erdi-gordea,
Gacho maitea,
Bera da pullitena ango lorea!

Mariekin balinbadu moltsa oria,
Merkatura guateko badu saskia
Churi-churia;
Arroltze lau dotzena, oilasko bia,
Salduz, guzia.
Zertako den aberatz orra Maria!

Jendek errana-gatik al eta ola,
Marie batzuetan ez jakin nola
Goibel dagola;
Bertzetan nigarcho bat jausten zaiola..
Zer zaio achola?
Baluke nai balu aise kontsola!

Igandetan Marie zinez panpina;
Zapata chabalekin soin motch urdina
Berak egina
Elizako bidean arin-arina.
¡Mila sorgina!
Errege baldin banitz zer erregina!

ELIZAMBURU.

